

Zuzenketak lehenengo aurrekontu borradorean:

- Zerbitzu sailean aurkitzen den alde zaharreko partida hirigintzara pasatu da.
- Goup gizarte segurantzaren akatsak zuzendu dira.
- Langileriako proposamena eta kontabilitatearen artean egon diren ezberdintasunak zuzendu dira.
- Enplegu planetan datuak zuzendu dira.

Urtarrilean egindako aldaketak:

- Etxebizitza hutsen gainkostuan 100.000€ diru sarrerak aurreikusi dira.
- Sastar batze, urigintza lizentziatan eta azpi-lurratik aurreikusten diren diru sarreretan eguneraketak egin ditu kontuhartzaileak.
- Gastuetan ere aldaketa batzuk proposatu ditu kontuhartzaileak. Udal eraikinen mantenuaren zati bat, 16.639,39€ inbertsioetan jarri da, Informazio prozesuetarako ekipamendurako 15.767,86€ jarri ditu, 3 eta 9. kapituluak zuzendu ditu eta langileriagaz egon diren desberdintasunak zuzendu dira.

## **ONARTUTAKO EMENDAKINAK OSORIK EDO PARTZIALKI**

EAJk aurkeztutako eta osorik edo partzialki onartutako emendakinak:

1. Kiroi Patronatuko inbertsioetarako transferentziak 35.000€ onartzen dira.
2. Enpresa auditoriak kontratatzea 9.110,15 jartzea proposatzen da. 3.110,15 gehiago. Onartzen da
3. Auzoetako jaiak lurgintzatik kulturara pasatzea. Auzo alkateekaz egin da berba eta ez da egoki ikusi.
4. Langileria arloan opor egunak hartzerakoan zerbitzua bermatzea lortu behar da beraz, plangintza hobetu beharko da plangintza okerrenatik ordezkapenak egin beharra ekiditzeko.
5. Kiroidegiko bidea konpontzea aurreikusten da azpiegitura eta ondasun naturen partidan. Aurreikusita zegoen eta egin beharreko lanen zerrendan dago.
6. Txakurrak solte egoteko guneak sortzea proposatzen da. Partaidetza prozesuan herritarrekin konpartitzeko moduko proiektua dela ikusten da, bertan, proiektua, gunea eta beraz, aurrekontua definitzeko.
7. Bizkaiko Jaurerriko proiektua ondo ikusten da baina barneko giza baliabideekaz egitea proposatu da. Onartzen da.
8. Plazako aparkalekuaren erabilera sustatzeko diru partida bat aurreikustea proposatzen da. Inguruko merkatariei eskaintzea aztertu, seinalitika hobetu promoziorako, egun konkretuetan ordutegiak zabaltzeko aukera aztertu... Helburu moduan sartzen dogu baina hau egiteko partidak badaukaguz partida ezberdinetan banatuta merkataritza eta zerbitzuetan eta beraz, ez dogu partida gehigarri behar danik ikusten.
9. Lamerako jolasgunea estaltzea proposatzen da. Partaidetza prozesura eramatea proposatzen da eta zein izan daitekeen gunerik aproposena aztertu: dagoen jolas guneetarako bati aterpea jarri, aterpedun jolas gune barri bat eraiki, instalazioren baten aukera eman... Gunea, proiektua eta beraz, aurrekontua partaidetza prozesu bidez erabakitzea aurreikusten da.
10. Saihesbideko proiektua amaitzerakoan san andres eta erreñezubi bitarteko bidegurutzerako proiektua egin eta trafiko plana egitea proposatzen da. Barneko

- baliabideekin bidegurutzeko behin behineko interbentzioak proposatzea aurreikusten da. Epe ertainera begira, batera joan beharko litzateke proiektu biak. Bestalde, herri guztiko mugikortasuna hobetzeko plangintza diseinatzea aurreikusten da.
11. Uriguneen barriztapenean 150.000€ inbertitzea aurreikusi zan. Inbertsio hauetatik 89.000€ diru sarrera arruntekin finantzatzeko eskatu da horrela ulertzen baitu EAJk IBIaren gainean egindako gure arteko akordioa. Onartzen da eta beraz, likidazioan izango dugun igoera kopurua, uriguneak barriztatzeko eta familia ugarien dirulaguntzak emateko erabiliko dira.
  12. Pergolako aparkatzeko gunea eraikitzea proposatu da. Diru partida murriztea proposatzen da eta talde ezberdinen zalantzak ikustean bertan behera uztea erabaki da.
  13. Itsasbegin aparkalekua egiteko aukera aztertzea onartzen da. Hori bai, ez da lurrik desjabetuko proiektua argitu arte.
  14. 21.2 ejekuzio unidatean urbanizazio lanak aurreikusten doguz. 200.000€ sarrera urbanistikoen bitartez finantzatzea proposatzen da.
  15. Auzo taxiak 600€ igotzea partida proposatzen da. Onartzen da.
  16. Auzo bideen garbiketak egiteko 13.000€ gehiago sartzea proposatzen da. Onartzen da.
  17. Lurgintzako azpiegituretan diru gehiago sartzeko aukera aztertzea eskatu da eta 50.000€ sartzea proposatzen da.
  18. Berdintasun politikak aurrera eroateko plangintza egitea proposatu da. Horretarako 10.000€ gehiago sartu da. Urtarrilak 24ean partida barri hau desglosatzeko eskatu da 30.000€ pertsonalarentzako eta 20.000 plana erredaktatzeko. Loturagaz uztea erabakitzen da ez dakigulako partida zehatzek zenbat suposatuko duten eta batez ere, lehentasuna berdintasun agentea kontratatzea delako.
  19. Batzordeetara joategatik gastuak 20.000€ gehiago jarri.
  20. Gazteleku zerbitzua indartzea eskatu da. 2000€ gehiago jarri dira

#### Guzanek aurkeztutako eta onartutako emendakinak:

1. Hirigintza politiken definizioa argitzea eskatzen da. Azalpenak emon ondoren, Berualako aurrekontuetan helburuak isladatuko dira eta aurrekontuen memorian ere agertuko dira. Berualako aurrekontuan alokairuentzako dirulaguntzak agertzea be eskatzen da. Onartzen da. Urtarrilak 22an alokairuetarako partida 16.000€-koa, ez dala nahikoa eta 70.000€ jartzea eskatu da. Onartzen da.
2. Martxan dagozan proiektuak kontsolidatu eta indartzea eskatzen da. Horien artean, Ortube, Aita Guria eta Txakurren gunea. Ortube eta Aita Guria indartzeko 48.960,77€ gehiago sartzea proposatzen da baina beste alderdien artean ez da begi onez ikusten eta beraz, 2017an Aita Guriaren hurrengo urteetako pausuak zehaztea eta denon arteko konpromisoak hartzea onartu da. Txakurren gunea partaidetza prozesuan herritarrekin konpartitzeko moduko proiektua dela ikusten da.
3. Bizkaiko Jaurreriako proiekturako diru partidarik ez erabiltzea eskatzen da exekutatzeko posibilitate gutxi aurreikusten dutelako. Onartzen da. Barruko baliabideekin diseinatuko da proiektua.
4. Berdintasun politikak aurrera eroateko baliabide gehiago sartzea proposatzen da. 10.000€ gehiago proposatzen dira.

5. Gazte politiken eraginkortasuna lortzeko inbertsioa indartzea proposatzen da. Gazteleku zerbitzua indartzea proposatzen da 2.000€ gehiagogaz.
6. Pergolako aparkalekua zalantzan jartzen da. Aurrekontuetatik kentzea proposatzen da.
7. Alde zaharreko inbertsioa konkretatzea eskatzen da. Bileran azaldu da eta memorian ere agertuko da. Alde zaharrerako aurreikusten diren proiektuak hauek dira: Hurtado de Mendozako proiektua, alde zaharreko plan berezia, lokal hutsen azterketa, orube hutsentzako proiektuak, alokairu sozialak, u teoriaren bitartez hasitako prozesuari jarraipena alde zaharraren biziberritzerako, BAZP lan taldea...

Izartuk aurkeztutako eta onartutako emendakinak:

1. Negoziaketatik kanpo gelditzea erabaki dute.

Sarrera urbanistikoekin finantzatzeko proposatu diren inbertsioak: 668.960,77€

- Bizkaiko Jaurreriaren proiektua 30.000€
- Alde zaharreko azpiegiturak (hurtado de Mendoza, plan berezia) 90.000€
- Azokako hobekuntzak 15.000€
- Uriguneak berritzea (tala, zarragoitxi, itxas begi...) 150.000€
- Aparkatzeko gunea 200.000€
- Udaletxea 150.000€
- Lurgintza (agarre, argiteria...) 33.960,77€

Emendakinen ostean sarrera urbanistikoekin finantzatzeko proposatu diren inbertsioak: 668.960,77€

- Alde zaharreko azpiegiturak (hurtado de Mendoza, plan berezia) 90.000€
- Azokako hobekuntzak 15.000€
- Uriguneen barriztatzea (tala, zarragoitxi, itxas begi...) 128.960,77€
- Udaletxea 150.000€
- Lurgintza (agarre, argiteria...) 50.000€
- Kiroldagiko azpiegiturak 35.000€
- 21.2 ekuzio unidatea 200.000€

Sarrera urbanistikoekin poltsa bat uztea proposatzen da herritarren partaidetzarekin inbertsioak egiteko. Poltsa hau 200.000€tako izatea proposatzen da. Herritarren mahaira erotea proposatzen diren proiektuak:

- Jolasleku estalia
- Txakurren gunak
- Beste batzuk...